


Berriketan

Debako herri aldizkaria - 184. alea - 2014ko apirila



Hondakinen
inguruko
eztabaida,
kalean



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




ABEL

Kristaldegia

*Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak*

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net




AUKERA

INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa



kutxabank



RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Calbeton

JATETXEA

**Agusín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOAZ
20820 DEBA (Gipuzkoa)



sasoiiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresioak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea eta
kolaboratzaileak:

Nagore Dorransoro, Xabier Laka,
Ina Oiertzabal, Migel M.Lekube
(Lutxo), Lukax Dorransoro,
Koldo Aperribai, Izaro
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane
Aizpurua, Haika Aizpurua,
Nekane Goikoetxea, Mattin
Urbietia, Mikel Aizpurua,
Debako Gazte Asanblada,
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Erredakzioa

Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN
ERAKUNDA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Gobierno Vasco



Gipuzkoako
Foru Aldundia

aurkibidea

05-06

Eider Zulaika,

"Ene!! Balaike?";

Debako Gazte Asanblada,
"Zatoz Gaztetxera!".

08

KIROLA

200 txirrindulari gazte arituko
dira Euskal Herria trofeoan



09

ALBISTEA

Sute ikusgarria izan zen
Astillero kalean



15

ALBISTEA

Debako txistularien ibilbidea,
iruditan



16-17

LABURRAK

X. Akordeoi Topaketa,
autobus zerbitzua hobetzeko
parte-hartze prozesua...



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zubeltzu bertso paper lehiaketako sariak banatu dira

Joan den ostiralean, apirilak 11, banatu ziren Zubeltzu bertso paper lehiaketako sariak, Agirre jauregiko ispiluen gelan antolatutako ekitaldian. Txikienen kategorian, Aloña Salegi suertatu zen garaile, Ane Txurruka eta Goretti Unanue atzetik zituela. Gazteen mailan, aldiz, Aitor Arakistain izan zen nagusi; bigarren eta hirugarren Ekaitz Zubimendi eta

Julen Arufe geratu ziren, hurrenez hurren. Azken kategorian, nagusien taldean, Ander Zulaika nabarmendu zen baina orpoz orpo izan zituen Karlos Larrañaga eta Luis M. Agirrezabala.

Sari banaketaren ondoren, trikitien doinuekin aterako ziren bertan bildutakoak, eta Itziarko bertso eskolari esker, bertso-triki txikite-

oarekin jarraituko zuten Debako kaleetan; halaxe zegoen, behintzat, programatuta.

Bordatxon egin zen bertso afariarekin amaituko zuten eguna. Agin Laburu eta Unai Agirre izan zituzten lagun. Luze eta zabalago emango dizuegu guztiaren berri maiatzeko *Berriketan*-en.

Debako Udala eta Zuhatza



Ate irekien eguna **Apirilak 30**

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak

Ingalaterra - Alemania

Portaleako Erakusketa

Apirilak 4 - 27



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



EIDER ZULAIKA

ENE!! BALAIKE?

168 ordu, hau da, astebete besterik ez! Segundoak minutu eta minutuak eternitate bilakatzea ere! Haizeak nondik jotzen duen ezin asmatuta ibiltzea... Alegia, iparra guztiz galdu duzun sentsazio hori...

Bai, bai! Ez nuen sekula pentsatuko aparatu (batzuetan) gogaikarri horrek horrenbeste eragingo zidanik nire eguneroko bizitzan. Bai, bai! Ohetik altzarazteko beharrezko dudan soinu desatsegin hori; zoritxarrez, edo halabeharrez, derrigorrezko duzun oheburuko dekorazioa izan litekeenak bere onenak emanda dituenen...

Edo, autobusaren zain zauden denbora tartean, minutuak segundo bihurtzeko abilitadea duen tramankulu horretaz ari naiz. Bai, bai. Eseri, patrika edo poltsan eskua sartu eta era inkontziente batean behatz artean izaten dugun tabako pakete itxurako horretaz.

Edota etxeko sofan lasai ederrean botata zaudela, bat-batean, zarata ezohiko batek egongelara ekartzen zaituenean, ideien/amesen mundutik... Ene! Hori nire telefonoa da


eta!! "Deitu zezakeen ba mugikorrera! Ai, egia! Hil egin zen!". Orduan ohartzen zara oraindik badela jendea etxeko telefonoen zenbakiez oroitzen dena.

Duela zazpi egun, nire mugikorrari, mahai hegaletik bere buruaz beste egitea otu zitzaion. Igande iluntze lasai batean, gu bion arteko harreman ez horren luzeari amaiera emanez. Ordundik aurrera dena urrun ikusten dut.

Aldiroko lagunak WhatsApp bidezko mezurik gabe, ezagutzen ez dudan mundu berri batean sentitzen ditut hankak.

Baina, balaike horren menpekotasun handia sorraraztea mugikor alu batek? Eguneroko bizitza beste era batera ikustera behartzen zaituenik pentsatzea ere. Gaur egun, gure bizitza osoa (argazkiak direla, Facebook, WhatsApp, Twitter bidezko

komunikazioa dela, tartekako deiren bat...) mugikor edota ordenagailu batean dugula konturatzeak ikaratu ere egiten nau. Horiiek inguruan ez ditugunean olagarro bat garaje batean bailitzan sentitzen baikara.





Zatoz Gaztetxera!!

Gaur egun, Deban ez dugu aisialdirako aukera askorik. Gainera, urteko sasoi hauetan, eguraldiak ez gaitu batere bultzatzen ekintza desberdinak egitera. Debako gazteriaren aisialdirako eremua oso mugatua da, gehienbat lokalak eta kirol ekintzak dira denbora pasa ugarienak.

Baina, jendea konturatzen ez den arren, Gaztetzuek aisialdi ekintza ugari eskaintzen ditu. Ez da adibiderik falta: orain, saskibaloian jokatzeko aukera dago; boxeoko ikastaroa ere badago, astelehen eta larunbatetan. Hortaz, Gaztetzuearen dinamika ez da asteburuetara bakarrik mugatzen. Gainera, astean zehar belaunaldi desberdinetako jendea elkartzen gara gure denbora librean Gaztetzuean. Gaur egun dagoen aisialdi eskaintzatik haratago mila aukera ematen dituen gunea da, eta ideiek eta proposamen berriek atea irekita dituzte. Horretarako, ostiralero gaueko 10etan egiten dugun gazte asanbladara gonbidatuta



dago edozein gazte. Orain, gazte asanblada inoiz baino anitzago dago, adin desberdinetako jende ugari baitago; eta aniztasun horrek Debako gazte mugimendua aberasten du, gure jarduna ikuspuntu desberdinetatik elikatzen delako. Lokaletako dinamikan ez bezala, Gaztetzuea edozein egunetan joanez gero, beti dago zerbait egiteko; lagunekin egon, musika entzun, Gaztetzuea txukundu...

Beraz, lotsak eta beldurrak alde batera utzita, zuen egunerokotasunean Gaztetzuea etortzeko deia bidaltzen dizuegu, eta ez egin kasu jendearen aurreiritziei, jendeak, Gaztetzuea sartu ere egin gabe, gure txoko hau epaitzen

baitu. Gaztetzueari bizitasuna eta itxura hobea ematea denon esku dago; baita Gaztetzuea aurrera eramatea, txukuntzea, garbitzea... ere. Hau dena esanda, badakizue, Gaztetzuea denona da eta denon esku dago!

Ekaitz Zubimendi

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
Telf.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzeta

943 191 383
berriketan@zuhatzeta.com

Hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida kalera ere iritsi da...

Argi dago hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida kalera ere iritsi dela; hainbat herritarrek zabor poltsak zintzilikatu dituzte euren etxeetako leiho edo balkoietan. Beste zenbait udalerritan ere protesta edo aldarrikapen bera erabili dute hiri hondakinak biltzeko atez ateko sistemaren aurka. Begirada geure herrian jarrita, *Berriketan* aldizkariak Udalera jo du gai honen inguruan informazio eske. Maider Zubikarai alkateak eman dizkigu erantzunak.

Balkoietan eskegita dauden zabor poltsen inguruan zein iritzi du Udalak?

Herritarrek beren iritzia azaltzeko egin-dako ekintza da. Errespetatu eta kon-tuan hartzen dugu.

Udal gobernuak hartuta du dagoeneko erabakia hondakinen kudeaketaren inguruan?

Ez, udalak ez du oraindik sistemarekiko inolako erabakirik hartu. 2012ko ekainaren 28an onartutako mozioan, sistema eraginkor bat ezartzeko ardura hartu genuen eta aukeraketa herritarren parte-hartzeaz egingo genuela adostu.

Aurreko hileko osoko bilkuran, 2014ko martxoaren 27an, erabaki hau herritarrek hartuko dutela adostu genuen.

Debako EAJk otsailean prentsan kale-ratu zuenaren arabera, "udal gobernuak irailean atez ateko sistema ezartzea erabaki du, debarren iritziari entzungor eginez". Zuzenak al dira datuok? Alegia, irailean ezarri edo "inposatuko" da atez atekoa?

Gezurra da. Erabakia udal plenoak hartu beharko du, eta ez dugu oraindik sistemarik proposatu onartua izan dadin.

Legegintzaldi hasieratik mankomunitatean herrirako egokiak izan daitezkeen aukerak aztertu nahian gabiltza. EAJk bide hau blokeatu besterik ez du egin PSerekin batera, beraiek baitute gehiengoa Debarrena mankomunitatean.

Hondakinak biltzeko atez atekoaren ezarpena modu azkarrean egin da Gipuzkoako hainbat herritan, bai. Honi esker, EAJk inposatu zigun errauskailua gelditzea lortu dugu gipuzkoarrok, gure osasuna eta ingurumena babestu, eta diru asko aurreztuz gainera.

Gogorra da instituzio desberdinen buru urte luzez izan den EAJk,

sekula ezer galdetu ez duenean, besteoi inposatzaile deitzea. Gai honi esker beren praktika politikoa aldatzen badute, denontzat hobe.

Herritarrekin parte-hartze prozesua egongo dela ere entzun da. Nola planteatzen da parte-hartze hori? Herritarren iritzia jasotzeko urratsak emango ditu Udalak?

Bai. Herritarren iritzia jasoko dugu eta herritarrek izango dira sistema egokiena aukeratuko dutenak.

Mankomunitateko teknikariak herrirako egokia izan daitezkeen sistema bat lantzen ari dira (bilketa guneak, kostuak, kamioi motak, langile kopurua...). Herriko ingurumen teknikaria, berriz, ezagutzen ditugun sistema desberdinen bilduma osatzen ari da.

Bi lan hauek osatzen dituztenean, herritarrei aurkeztu eta azalduko dizkiegu. Informazio guztia eskura edukita, iritzia eta ekarpenak jasoko ditugu.

Bukatzeko, herritarrok erabakiko dugu gure hondakinak biltzeko sistema egokiena zein izango den.

Gaur gaurkoz, zein egoeratan dago hondakinen kudeaketa gure herrian? Zertan ari zarete uneotan?

Udal kudeaketaren ardura dugunetik Zero Zabor bidea jarraitzen saiatu gara hondakinen kudeaketari dagokionez. Programa honen arabera, birziklatzeak baino murrizteak eta berrerabiltzeak dute lehentasuna.

Hondakin organikoa konpost bihurtzeko programek arrakasta izan dute eta beste hiru konpost gune jarriko ditugu epe motzean. Hau eginda, herri-tik ateratzen den hondakin kopurua murriztea lortuko dugu eta honek duen diru kostua. Konposta egiten duten herritarrek igarri dute murrizketa hau beren zergatan.

Kaleko edukiontzia ere uda baino lehen aldatuko ditugu, hondakinak sailkatuta botatzeko aukera izan dezagun.

Etorkizunera begira, zein izango da helburua? Eta zein urrats aurreikusten dituzue hori lortze bidean?

Etorkizunean, Zero Zabor herria izateko pausoak ematen jarraitzea litzateke helburua. Honetarako ingelesezko hiru "R"ak izan beharko ditugu ardatz, ordena honetan: *Reduce*/Murriztu, *Reuse*/Berrerabili, *Recycle*/Birziklatu.



Udalean ordezkari-tza dugun alderdi guztiok 2016rako hondakinen %60a birziklatzeko helburua betetzea adostu dugu. Honetarako sistema egokiena aukeratzea guztion ardura izango da.

Edozein hondakin bilketaren arrakastaren gakoa norberaren etxean dago. Herritar bakoitzaren etxeko hondakinak gaika (papera, organikoa, ontziak,...) biltzeko urratsa eman behar dugu. Hau ziurtatzea izango da urrats eraginkorrena.

Berrehun bat txirrindulari gazte arituko dira Deban ospatuko den Euskal Herria trofeoan



Apirilaren 27an hitzordua dute txirrindulari gazteek zein zaleek Deban. Urtero Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak kadeteentzako antolatzen duen lasterketa Euskal Herria trofeoan barneratu dute oraingoan eta 200 bat parte-hartzaile espero dituzte proba honetan. Azken asteotan txirrindulariek gure herrian burutzen duten hirugarren hitzordua izango da.

Txirrindulari kadeteak izango dira protagonista datorren apirilaren 27an (igandea) burutuko den lasterketan. Goizeko 11etan plaza berritik abiatuko da proba eta 52 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek. Deban hasi eta amaituko da lehia, tartean Mendaro, Elgoibar, Maltzaga, Soralue eta Bergararik joan-etorria eginez. Sari banaketa Debako plaza berrian egingo da.

Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeko kideek jakinarazi dute 200 bat txirrindulari espero dituztela. Erronka handia izango dute, beraz, proba hori antolatzen. Aurreko urteetan ere kadeteentzako lasterketa antolatu izan da Deban, baina aurtengo hitzorduak izaera eta garrantzia berezia izango du, Euskal Herria trofeoaren barnean txertatu baita lasterketa.

Bira zikloturista arrakastatsua

Apirilaren 27koa herrian azken hilabe-

tean ospatuko den hirugarren txirrindularitza proba izango da. Martxoaren 30ean Debako XXII. Bira zikloturista egin zen, 400 parte-hartzaileekin. Eguraldi ederra lagun zutela, 114 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten txirrindulariek eta aurtengo lehenbiziko proba hori arrakastaz burutu zela baloratu zuten antolatzaileek.

Parte-hartzaile gehienak (248) gipuzkoarrak izan ziren, eta bizkaitarrak ere ez ziren gutxi izan (112 lagun). Nolanahi ere, beste hainbat lekutatik ere etorri ziren txirrindulariak norgehiagokan parte hartzera. Araba, Nafarroa, Burgos, Kantabria, Caceres, Malaga eta Madrildik ere hurbildu ziren kirolariak. Parte-hartzaileen artean 14 emakumezko aritu ziren lehian.


Lasterketan hiru istripu izan ziren guztira. Horietako bitan ez zen kalte larririk izan, txirrindulariak erori eta laster heldu baitzioten berriz ere ibil-



Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeko kideak.

bideari. Hirugarrenean, ordea, txirrindulari batek aldaka hautsi zuela jakinarazi zuten antolatzaileek.

Bestetik, apirilaren 5ean XLI. Amaikak Bat Txirrindularitza Saria (junior mailakoa) jokatu zen Deban, Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak antolatuta hori ere. 86 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten parte-hartzaileek.



Sute ikusgarria izan zen Astillero kalean

Martxoaren 25ean Debako zortzi bizilagun eta suhiltzaile bat ospitalera eraman zituzten, Astillero kaleko zortzi solairuko etxebizitza batean izandako sutean kea arnastu ondoren.

Sutea goizeko 8:45 inguruan hasi zen, Astillero kaleko bosgarren zenbakiko hirugarren solairuko etxebizitza batean. Lehenengo, bigarren eta hirugarren solairuetako bizilagunak atera zituzten suhiltzaileek, baina ke handia sortu zen eta ezinezkoa izan zen goiko solairuetako bizilagunak beraien etxebizitzetatik ateratzea. Suhiltzaileen gomendioz, euren etxebizitza barruan egon behar izan zuten horiek eta kea sar ez zedin, eskuoihalak busti eta ateko zirrikietan jarri behar izan zituzten.

Beldurra sortu zuen suteak, su-garrak handitu eta kearen dimentsioa ikusita. 9:30erako sutea itzalita zegoen, baina suhiltzaileek bertan jarraitu zuten, eraikinean zegoen kea ateratzen. Kea arnastu zuten bederatzi lagun ospitalera eraman zituzten. Nolanahi ere, arratsalde parterako alta eman zieten guztiei.

Bigarren sute bat, egun berean

Egun berean, suhiltzaileek oraindik ere Astilleron lanean jarraitzen zuten bitartean, Deban bigarren sute bat piztu zela ohartarazteko deia jaso zuten.

10:00ak aldera Latzurregi kaleko etxebizitza bateko sukaldean piztu zen bigarren sute hori. Suhiltzaileak hurbil egonik, dena den, sutea ordu laurden batera itzalita zegoen. Bizilagun bat anbulategira eraman behar izan zuten, kea arnastu ondoren.



Zuhaitz Eguna ospatu zuten ikasleek

Luzaro ikastetxeak eta Debako Udalak Zuhaitz Eguna ospatu zuten martxoaren 28an, Itziar bidean dagoen konposgunea landareekin atonduz.

Bi txandatan banatuta, 4. mailako 47 ikaslek Goroldiko (udaleko lorezaintza eramaten duen enpresako) teknikariaren azalpenak jaso zituzten lehenbizi: zuhaitz eta landareen garrantzia (kutsakorra den karbono dioxidoa xurgatu eta oxigenoa askatzen dutelako), landareen atalak eta elikaduraren beharrak, etxeko konposta landareentzako ongarri ezin hobea dela... Bi landare mota usaintsu (erromeroa eta haltza) eta kolorez deigarria den *Spiraea Japonica* "Goldflame" izeneko zuhaixka landatu eta belar haziak erein zituzten, talde txikietan banaturik.

Gustura asko ibili ziren ikasleak eta udaleko ordezkariek. Etorbizunean ere antzeko ekimenak egitea aurreikusi dute.

English Academy

NORTH STREET ENGLISH



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarriak: 20:00 / 23:00

Bordatxo JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

“Auzo Udalaren prozesua bultzatzeko eta informazio okerrak zuzentzeko sortu da Denon Herria”

Martxoaren hasieran Aldats pilotalekuan aurkeztu zen Denon Herria plataforma, Itziar Auzo Udal izateko prozesua babesteko. Herri ekimen honek auzi honekiko dituen iritzi eta ikuspuntuez sakonago mintzo zaizkigu oraingoan plataformako kide Maider Aizpurua eta Ander Zulaika.



Zertarako sortu da DENON HERRIA plataforma?

ANDER: Deba eta Itziarren arteko harremanari irtenbide bat emateko aukera ikusi dugu. Auzo Udalaren prozesua bultzatzeko sortu gara eta herrian zabaltzen ari diren informazio okerrak zuzentzeko.

Ba al dago ba kontsentsurik gai honen inguruan?

MAIDER: Auzo Udalaren inguruan oinarritzko adostasuna badago eta arriskutsua izango litzateke adostasun hori orain puskatzea. Herria Sortzenek Auzo Udalaren alde egin du, segregazioa atzean utzi du. Eta Debako alderdiek ere onartu dute ezin dutela Udala erabili Itziar ukatzen jarraitzeko. Auzo Udala da erdibideko irtenbidea, adostasuna posible egiten duena.

Sinadura bilketa egin da Oinarrizko Txostenari alegazioak egiteko. Zein da zuen iritzia?

ANDER: Sinadura horiek debarron beldur bat erakusten dute, eta maila horretan errespetatzen ditugu. Normalak dira. Edozein aldaketaren aurrean normala da beldurrak sortzea. Baina etorkizuna ez da beldurretik eraikitzen.

MAIDER: Informazio gehiago behar da kalean.

Ez dizue beldurrik ematen aurrerago Itziar herri izendatzeak?

MAIDER: Nik, debar bezala, ez dut horren arriskurik ikusten. Urte pila bat dira itziartarrek herriaren aldarrikapena aparkatu zutela. Bestalde indarrean dagoen legeak ez die herri izaten uzten. Gainera, segregazioa eskatuko balute ere, Debak bere burua defenditzeko aukera guztiak lituzke. Duela urte batzuk atzera bota zen segregazio eskari bat.

ANDER: Auzo Udalari atea ixtea da gure beldurra, batez ere konponbidetik hain

gertu gaudenean. Madrilgo lege berriak ez du bigarren aukerarik uzten. Edo orain konpontzen dugu edo ez da konponduko.

“Gora Deba!” plataformak ere Auzo Udala defendatzen du.

MAIDER: Bai, bi plataformen artean antzekotasunak badauzkagu, baina baita diferentzia nabarmenak ere. Guk ere esaten dugu ‘Gora Deba!’, baina gure ‘Debak’ ez du Itziar kanpoan uzten. Itziar Deba dela defendatzen badugu, gero kontsekuenteak izan beharra dago. Gora Deba baina denon Deba.

ANDER: Beste diferentzi bat ere badago. ‘Gora Deba!’-ren proposamenak Elorrixa, Mardari, Lastur eta beste hainbat Auzo Udaletik kanpo uzten ditu. Herritarren parte hartzea eskatzen dute, baina gero auzo batzuk kanpoan utzi nahi dituzte eurei galdetu ere egin gabe. Ba al du zentzurik itziartarrentzat Auzo Udala bat onartzeak itziartarren borondatea aintzat hartu gabe?

Lurralde banaketa ez al da desproporzionatua?

MAIDER: Askotan ari gara hori entzuten, Deba 3 kilometroekin geldituko litzateke-ela eta Itziar 48rekin. Baina hori ez da egia. Auzo Udalarekin Debak 51 kilometro izango ditu, Auzo Udala ere Deba delako.

ANDER: Gainera diru sarrera guztiak Debako Udalak kontrolatuko ditu...

Baina etorkizunera begira...

MAIDER: Udaletzeko zinegotzi guztiak onartu zuten proiektua. Horrek zerbait esan nahi du. Logikoa denez 13 zinegotzik ez dute onartuko Debarako kaltegarria den proiektu bat.

ANDER: Deba ez da lurrik gabe geratuko. Auzo Udalak egunen batean herri izateko prozedura hasiko balu, negoziaketa prozesu berri bat hasi beharko luke Debako

Udalarekin. Alegia, lur eremuaren inguruko kontrola Debako Udalak izaten jarraituko du.

Ez al da posible beste lur eremu bat Auzo Udalarentzat?

ANDER: Gure ustez, herritarren hitza errespetatu behar da. Auzo Udala nahi duten galdetu behar zaie itziartarrei eta erabakitzen dutena alderdi guztiak errespetatu beharko lukete. Hori da demokrazia eta hori da lur eremua finkatzeko modu objektiboa.

Zein berme du Debak ondoren Auzo Udala herri ez bihurtzeko?

MAIDER: Berme onena itziartarren borondatea irabaztea da, azkenean beraiek erabakitzen dutelako. Debarrok Itziarri lekua egiten diogun neurrian nahi izango dute itziartarrek debar izan.

ANDER: Auzo Udala onartzeak ez du ezertarako errazten segregazioa. Alderantziz, itziartarrak Deban hobeto kokatzen dituzenez, segregazioa bilatzeko arrazoi gutxiago izango lukete.

Zer espero duzue datozen hilabetetan?

MAIDER: Deba denon herria izatea nahi dugu. Itziar Debako Auzo Udala izendatzea epe luzerako konponbidea dela sinesten dugu eta aukera bat ematea eskatzen dugu. Galtzeko ez daukagu ezer eta irabazteko asko.

Beste zerbait nabarmendu nahi?

MAIDER: Zoritzarrez gaia bere onetik atera da. Baina berez gestio kontu bat baino ez da. Tokiko gobernu batekin Itziar bizi kalitateak gora egingo du.

ANDER: Hortaz ari gara, itziartarren bizi kalitatea hobetzeaz. Deba hobeto gestionatzeko formula topatzeaz. Eta une honetan formula horren izena Auzo Udala da.

Denon Herria

BERRIKETAN GAZTEA

2014ko apirila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

Martxoaren 24-26 bitarte, 2. DBHko ikasleek bidaia egin zuten Arotz-Enea ingurumen eskolara. Hiru egun horietan hainbat ekintza egin zituzten bertan; alegia, mendira joan, animalia harrapariek liseritu ezin dituzten elementuak gorputzetik nola kanporatzen dituzten ikusi (egagropilak aztertuz), kobazuloak bisitatu, txondorra nola egiten den ikusi, etxearen inguruko zelaietan jolastu, diskotekan dantza egin eta ingurumenarekin lotutako beste hainbat ekintza ere egin zituzten. Ikasleak tutoreekin batera joan ziren: Itziar Bergara, Iñigo Sorazu eta Jokin Lasarekin.

Arotz-Enea Kutzak erositako baserri-etxea da, Etxarri Larraunen kokatua. Mendiz eta zelaiz inguratuta, gainera, kirol eta aisialdi instalazio apartak ditu: frontoi bikain bat, saskibaloiko saskiak, bi futbol-zelai, igerileku bat... Gehienetan, ikasleak bertatik pozik irteten dira, berriz bueltatzeko gogoarekin. Orain 3. DBHn dabilzan ikasleek esperientzia bikaina bizi izan zuten iaz; oraindik gogoan dituzte bertako jatordu goxo eta oparoak. Ziur gaude 2. DBHko ikasle nahiz irakasleek esperientzia ezin hobea izango zutela oraingoan ere!

Arotz-Eneara bisitan



Langileen eskubideak aldarrikatuz hasiko dugu maiatz

Ikasleok pozik gaude! Egutegia oporrez josita dator! Aste Santua dela eta, bi aste izango ditugu jai eta langileen egunaren harira zubi bat dugu laster.

Langileen Nazioarteko Eguna aldarrikapenak egiteko aprobetxatuko dute langileen sindikatuek. Langileen Nazioarteko Eguna edo Maiatzaren Lehena langileen mugimenduaren nazioarteko jaieguna da. Chicagoko martiriak omentzeko II. Internazionala 1889an Parisen aldarrikatu zutenetik, langileen eskubideen defentsa egiteko eguna da, nahiz eta herrialde askok onartu ez. 1886ko maiatzaren 1ean Chicagon sindikalista anarkista

batzuek greba bat hasi zuten zortzi orduko lanaldia eskatzeko. Hiru egun pasa ondoren, grebaren une gorenean, Haymarketeko matxinada piztu zen eta greba bukatzean zortzi langile epaitu zituzten, eta horietako bostek heriotza-zigorra jaso zuten.

Bitxia bada ere, Estatu Batuetan ez dute egun hau ospatzen. Beraiek irailaren lehen-dabiziko astelehenean Labor Day ospatzen dute, 1882. urteaz geroztik. Egun horretan Knights of Labor izeneko erakundeak New Yorken manifestaldia egiten du. Britainiar kulturako beste herrialdeek ere ez dute jaieguna ospatzen: Kanadak Labor Day, Zelanda Berriak urriaren laugarren astelehena eta Australiak egun ezberdinak ditu estatuka. Euskal Herrian, aldiz, Europako gainerako herrietan bezala, sindikatu nagusiek manifestazioak eta mobilizazioak egingo dituzte hiriburuetan.






ELKA RRIZ KETA

Aritza Monasterio: "Lehenengo bi urteetan Euskal Herrira itzultzekotan egon nintzen eta jada 21 urte daramatzat Perun"

Aritza Monasterio Elgoibarko mendizalea da. Haren berri izan genuen gure ikaskidea den bere ilobari esker. Peruko Andeetan egiten du lan mendiko gida bezala. Internet bidez berarekin kontaktuan jarri ginen eta bidalitako galderei erantzun mamitsuak eman zizkien Aritzak.



Nolatan joan zinen Perura bizitzera?

Lehenengo, 1991n joan nintzen eta Huarazeko neska bat ezagutu nuen. Elkarrekin egon ginen Euskal Herrian eta 1993an ezkondu ginen; berriz joan ginen Huarazera bidaia batean eta han geratzea eta jate-txe bat irekitzea erabaki genuen. Nik mendian lanean jarduteko aukera izango ote nuen probatu nahi nuen; beti izan da nire pasioa, batzuetan etxetik kanpo denbora asko egotea gogorra den arren.

Nola sortu zitzaizun mendiarekiko zaletasun hori?

Txikitatik joaten ginen mendira eta nerabezaroan mendiarekiko erakarpina sentitzen nuen haitz eta izotz eskalatazailen argazkiak ikusteko. Gaztaro nahiko "mugitu" baten ondoren, 23 urterekin haitza eskalatzeko hasi nintzen Elgoibarko lagun talde batekin; Azkoitiko harrobi zaharrean hasi ginen eta bertan Azkoitiko eta Azpeitiko eskalatazaille batzuekin harremanetan hasi ginen. Askotan joaten ginen Rigloseko, Atxarteko eta Etxauriko eskalada eskolara, eta askotan Pirinioetara joaten ginen mendian ibiltzera: haitzean, izotzean, korredoretan eta abar... Eta 1991n, oraindik Alpeetan ere egon gabe nintzela eta, Peruko Andeetara joan nintzen lehen aldiz. Han nire mendiazaletasunean sakondu eta mendia nire bizimodu bihurtu zen.

Mendiko gida zara, ezta? Zer egiten du mendiko gida batekin?

Bai, mendiko gida naiz, Peruko mendiko gidaren elkartearen eta maila internazionalen ere bai. Nire lana mendian pertsonak gidatzean datza, segurtasun handienarekin, arriskuak gutxitzen saiatzen naiz, baina hori ez da %100 posible mendian. Bezeroei laguntzen diet gailurretara igotzen; haitzetan, elurretan, izotzetan... eskalada egiten ere gidatzen ditut, mendiko tekniken ikastaroak ematen ditut (segurtasunari buruzkoak, mendiko arrakaltetako eta glaziar eta erreskateari buruzkoak), baita umeentzat eta nerabeentzat eskalada ere. Mendia eta eskaladarekin loturik lan egiteko eremu profesional oso zabala dago.

Nolakoa da zure bizitza Peruko Andeetan? Nolakoa da bertako bizitza? Erraz bertakotu zinen?

Bizitza normala daramat. 100.000 biztanle dituen hiri batean bizi naiz eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu, baina batzuk ez dira Euskal Herrian bezain onak. Mendiko denboraldian, maiztetik irailera, askotan joaten naiz mendira, bost egunerako, astebeterako... bezeroen programazioa kontuan hartuta. Hemengo jendearekin asko erlazionatzen naiz, igoerak egiteko mendiko laguntzaileekin (sukaldariak, mendiko zamariak) esaterako. Hirian, beste hainbat lekutan bezala, bakoitzak bere lagunak eta ezagunak ditu.

Nire semearekin, Huarazen nagoenean, aktibitateak egiten saiatzen naiz: mountain bike, ibilaldiak, saskibaloia, skate. Ancash mendizerrako biztanleak batez ere hiritik gertu eta ondoko herriak txikitatzen dira. Iraupeneko nekazaritzan jarduten dute eta labore hauek hartzen dituzte: papak, artoa, quinoa. Labore horiek norberaren kontsumorako izaten dira, eta soberakinak herriko merkatuan saltzeko. Zenbait abere ere hazten dituzte: behiak, antxumeak, txerriak eta oiloak, esaterako.

Nahiz eta bertako hizkuntza jakin, egokitzea nahiko zaila egin zitzaidan; izan ere, kontraste sozial eta kultural handia dago eta oso gogorak egin zitzaizkidan lehen bi-hiru urteak.

Gogorra egin zitzaizun lagunak, familia... utzi eta Perura joatea?

Bai, nahiko zaila izan zen lagunak, familia, lana utzi eta Perura joatea. Gainera, lehenengo bi urteetan errealtate sozial eta kultural berrira egokitzea oso zaila egin zitzaidan. Euskal Herrira itzultzekotan ere egon nintzen. Azkenik, aurrera egin nuen gaur egun arte, jada 21 urte egin ditut Perun.

Etorzen al zara Euskal Herrira?

Ahal dudan guztietan joaten saiatzen naiz, baina hiru urte pasa dira azken aldiz joan nintzenetik, urte hauetan Zelanda Berrira etorzen ari binaiz. Hemen Aspiringguides izeneko konpainia bat gidatzen dut. Datorren urtean Zuhaitzekin, nire 12 urteko semearekin, joan ahal izatea espero dut, lagunak, familia... bisitatzera.

Zein da igo duzun mendirik garaiena? Istripu edo ezustekoren bat izan duzu?

Tontor garaienera dagokionez, Aconcagua (6.962 m) da, nahiz eta egonda nagoen hori baino altuagoa den Manaslun (7.000 metroa), baina ezin izan genuen igo eguraldi txarrarengatik. Ezustekook ere izan ditut, baina zorionez gauza serioerik ez. Peruko Andeetan 6.000 metrora elur-jausi batek harrapatu ninduen eta 70-80 metro eraman. Azkena, duela 16 hilabete izan zen Ama Dablamen, Nepaleko Himalayan: mendiaren barrenean izotz zati batek harrapatu ninduen 6.000 metroan, baina zorionez ez nuen hausturarik egin, hankan kolpe handia hartu nuen arren, eta jaitsiera oso gogorra egin zitzaidan. Ezuste gehiago ere izan ditut, baina horiek dira aipagarrienak.

EGILEAK: Ekaitz Zubimendi, Julen Aristi, Unai Matias eta Alex Alonso

TELEBISTA

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean telebistari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zenbat denbora pasatzen duzu gutxi gorabehera telebista ikusten egunero?
- 2.- Zein saio mota duzu gustukoena? Kirola, berriak, telesailak...
- 3.- Zein da inoz galduko ez zenukeen telesaila? Zergatik duzu gustuko?
- 4.- Zein da telebistako programarik eskasena? Zergatik?
- 5.- Zein telebista kate ikusten duzu gehien?
- 6.- Zer nahiago duzu, telebista ala interneta? Zergatik?



Patxi Aizpurua:

- 1.- Bi ordu egunean.
- 2.- Telesailak eta kirolak.
- 3.- *Castle*. Betidanik dut gustuko.
- 4.- *Mujeres y Hombres y Viceversa*. Txorrada bat delako.
- 5.- Cuatro.
- 6.- Biak gustatzen zaizkit.



Gorka Masach:

- 1.- Ordu erdi eta ordubete bitartean.
- 2.- Kirola.
- 3.- Olinpiadak. Atletismoa asko gustatzen zaidalako.
- 4.- *Mujeres y Hombres y Viceversa*. Astakeriak esaten dituztelako etengabe.
- 5.- FDF.
- 6.- Interneta. Nahi duzuna ikus dezakezulako.



Itsaso Iciar:

- 1.- Ordu erdi.
- 2.- Telesailak.
- 3.- *La Voz Kids*. Dibertigarria delako.
- 4.- *Sálvame*, asko eztabaidatzen dutelako.
- 5.- FDF.
- 6.- Internet. Gauza gehiago daudelako aukeran.



Ibai Perez de Albeniz:

- 1.- 40 minutu gutxi gorabehera.
- 2.- Kirola gustatzen zait.
- 3.- Eskubaloiko finala, gustuko dudalako.
- 4.- *Sálvame*. Txorradengatik.
- 5.- Teledeporte.
- 6.- Internet. Gauza interesgarriak daudelako.



Iñigo Muguruza:

- 1.- 2 ordu normalean.
- 2.- Telesailak.
- 3.- LQSA. Gustatzen zaidalako.
- 4.- *Sálvame*. Ez zaidalako batenre gustatzen.
- 5.- FDF.
- 6.- Internet. Lagunekin komunikatu naitekeelako.



Izaro Altzibar:

- 1.- Astegunetan ez dut telebista asko ikusten.
- 2.- Telesailak.
- 3.- *Castle*. Entreenigarria delako.
- 4.- *Sálvame* eta realitiak. Pertsonen intimitatea galtzen dutelako eta eztabaiden zentzua galtzen dute.
- 5.- FDF eta Cuatro.
- 6.- Internet, ez delako iragarkirik ikusi behar.



Alex Alonso:

- 1.- Ordubete edo ordu eta erdi.
- 2.- Kirolak.
- 3.- *Formula 1*, jarraitzaile sutsua naizelako.
- 4.- *Sálvame*, *Mujeres y Hombres y Viceversa*. Astakeriak iruditzen zaizkidalako.
- 5.- Antena 3 dut gogokoen, baina baita ETB1 ere.
- 6.- Interneta. Aukera gehiago ematen dituelako eta telebista kateak ikus daitezkeelako.



Maitane Morcillo:

- 1.- 5 ordu.
- 2.- Telesailak.
- 3.- LQSA. Oso umoretsu eta entretenigarria delako.
- 4.- *Sálvame*. Ez dute ezer egiten eta gainera asko ordaintzen diete.
- 5.- Telecinco eta La Nueve.
- 6.- Internet. Lagunekin komunika naitekeelako, sare sozialak daudelako eta abar.



HOROSKOPOD


ARIES



Martxoak 21-apirilak 19

Kirola egitea oso lagungarria da, baina neurrian, beti ere. Lasai hartu, ez zaitetz gehiegi nekatu.

TAURUS



Apirilak 20-maiatzak 20

Zure amonari bisita egingo diozu. Oso zaharra da, baina etxeko txirrina jotzerakoan, mutil batek parrandan dagoela esango dizu.

GEMINI



Maiatzak 21-ekainak 21

Hotz handia egiten du egun hauetan, eta hobe duzu bufanda jartzea. Lasai, hala ere: udaberria heldu da jadanik.

VIRGO



Abuztuak 23-irailak 22

Madrilera joango zara autobusez, kotxe bat erostera. Hala ere, denda itxita egongo da. Eta ez duzu edukiko autobus txartelik bueltatzeko...

CANCER



Ekainak 22-uztailak 22

Oraingoan, amarekin arazoak edukiko dituzu. Hark zure gela garbitzeko esango dizu, eta zuk huts egingo duzu. Beste konfuetan oso ondo ibiliko zara.

LEO



Uztailak 23-abuztuak 22

Kalera irten eta... maisuarekin topo egingo duzu. Etxera eramango zaitu, etxeko lanak egin ote dituzun ikusteko. A ze zorte txarra daukazun!

Irailak 23-urriak 22

Ahalegin handia egiten ari zara ikaske-tekin. Segi horrela, lanak emaitza ekar-tzen baitu beti.



LIBRA

Urriak 23-azaroak 21

Zenbaki gorritan zaude, baina primitiba boletu bat aurkituko duzu, eta baita tokatu ere. Eta horretaz ez ohartzeagatik, zenbaki gorritan jarraituko duzu.



SCORPIUS

Azaroak 22-abenduak 21


Zure urtebetetzean opari bat egingo dizute, eta ez zaizu gustatuko. Azkenean, zure anaia txikiak oparia txikituko du.



SAGITARIUS

Abenduak 22-urtarrilak 19

Kuadrillako lagunek asko maite zaituzte, zuk batzuetan kontrakoa pentsatu arren. Lagun onak dituzu benetan.



CAPRICORNIUS

Urtarrilak 20-otsailak 18

Bartzelonara joango zara, pelikula ospetsu bat ikustera -Harry Potterren azken filma-. Zinema itxita egongo denez, bidaiako dirua galduko duzu.



AQUARIUS

Otsailak 19-martxoak 20

Itsasoko ura maite duzu, baina hotz honekin ez dago uretara sartzerik. Zoaz igerilekura, han ederki ibiliko zara eta!



PISCIS

EGILEAK: Iñigo Egaña

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PERTSA TALERRA 2013-2014

Aitor Gonzalez
Alex Martija
Unai Matias
Ekaitz Zubimendi
Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldetrekua
Alex Alonso
Julen Aristi
Josu Arufe
Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meabasterretxea

Debako txistularien ibilbidea, iruditan

Martxoaren 21etik 30era bitarte, Agirre Jauregian Debako txistulariei buruzko argazki erakusketa egon da ikusgai. Bertan, XIX. mende bukaeratik gaur egunera arte bildutako irudiak ikusteko aukera izan dute bisitariek.

Argazki gehientsuenak San Roke jaietan ateratakoak izan ziren: Zortzikoa kaleetan barrena, zezen plazan, aurrekua, Marinel Eguna, Umeen Eguna... Era berean, bestelako hitzordu batzuetako irudiak ere presente izan dira erakusketan, hala nola gabon garaiak, Zoro feriak, Euskal Jaiak, Santa Zezilia eguneko kontzertuak, Santa Ageda, Kilometroak edota ekainaren 21ean ospatzen den Europako Musikaren egunekoak ere.

Hilik dauden txistulari garaikideei aipamen berezia egin nahi izan die erakusketak, haien oroimenez bildutako irudiak ere presente egon baitira bertan. Besteak beste, ondoko hauek ageri dira irudi horietan: Ramón Unanue, Xabin Arrizabalaga, Nere Iriondo, Joxe Sukia "Txapete", José Luis Garai, Miguel Mari Múgica, Julián Urain, Aitziber Alberdi, José Manuel Martínez eta Gorka Urkiri. Bestetik, 1980an Tene Mujikak ehun urte bete zituztean egin zitzaion omenaldiko argazki ederrak ere izan dira ikusgai Agirre Jauregian.

Berriagoak diren bestelako argazkietan gaur egun ezagunak ditugun txistulariak izan dira protagonista.

Erakusketaren antolatzaileek azaldu bezala, erakusketa osatu duten irudiak Udaleko Turismo eta Kultura saileko langileek eskaneatu ohi zituzten, argazki horiek denak hemeroteka digitaleko altxor bilakatu asmoz.



Abenduak 24 (1962).



Abenduak 24 (1964).



Tene Mujikaren 100. urtebetetzea ospatzen, 1980an.



1980ko hamarkada.



2014ko inauteriak.



2009ko San Rokeak.

170 soinujole elkartu ziren Akordeoi Topaketaren X. edizioan

Apirilaren 6an X. Akordeoi Topaketa burutu zen Deban. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 18 musika eskolako eskuisoinuko ikasle eta irakasleak bildu ziren topaketan, 170 bat soinujole guztira. Eta, horiekin batera, Debako erraldoiak, Aitzuri Abesbatza, Goaz Antzerki Taldea eta Debako Musika Eskolako Dantzari, Gaitero, Koraleko ikasle eta irakasleek ere parte hartu zuten hitzorduan. Kalejira batekin eman zioten hasiera egunari eta ondoren kontzertua izan zen Aldats pilotalekuan. Andima Egaña aritu zen zuzendari lanetan. Balsak, pop-rock musika, euskal abestiak eta Debako kantak ere eskaini zituzten musikariek, hala nola "Verdelito Habanera" eta "Erraldoien balsa".

Lagun Artea elkarteak 50 urte bete ditu

Lersundi kalean kokatuta dagoen Lagun Artea elkarte gastronomikoak urtemuga berezia betetzen du aurten, dagoeneko mende erdiko ibilbidea osatu du eta. 1964ko apirilaren 11n sortu zen elkarte. Zorionak!!

Autobus zerbitzua hobetzeko 2. faseko parte-hartze prozesua



Gipuzkoako autobus zerbitzua hobetzeko helburuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak parte-hartze prozesu bat abiatu zuen iaz eta 56 herritan bilera irekiak egin zituen, herritarren iritzia kontuan hartzeko asmoarekin. Berriki, parte-hartze prozesu horretako beste fase bat ireki da eta beste batzar batzuk ospatu ziren Deban eta Itziarren, martxoaren 25ean eta 27an, hurrenez hurren.

Bigarren saio horietan, Foru Aldundiak autobus zerbitzuko hobekuntzak aurkeztu zituen. Deba-Itziar linea Deba-Zumaia bihurtzea da hobekuntzetako bat (maiztasun handiagoarekin), beste autobus-linea batzuen maiztasunak ere handitu nahi dira eta zenbait linea Debaraino luzatu. Deban burututako batzarrean hogeita bat lagun bildu ziren. Maider Zubikarai alkatea eta Mugikortasun eta Bide Azpiegiturako diputatua den Larriz Ugarte ere egon ziren bertan, debarren proposamenak entzuten. Herritarrek prozesua ondo baloratu zutela jakinarazi du Udalak, Diputazioak aurkeztutako hobekuntzei buruzko iritzia eta horiekiko proposamen berri batzuk ere egin zituztela nabarmenduz. Itziarren buruturiko saioan, bestetik, bost lagun elkartu ziren.

Foru Aldundiak herriz herri jasotako informazioarekin autobus zerbitzu berriaren azken proposamena udaren bueltan aurkeztuko du, urte amaieran lizitazioa ateratzeko eta 2015ean abian jartzeko helburuarekin. Prozesuaren inguruko informazio gehiago www.garraioahobetzen.net atarian aurki daiteke.

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak


Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



RPS: 183/12

Sentsibilizazio kanpaina Zumaia-Deba Biotopoa



Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sentsibilizazio kanpaina abiatu dute Zumaia-Deba Biotopoa, "bisitarien artean landa gunearakiko errespetuzko jarrera sustatu eta erabilera publikoa eta baserritarren jardueraren arteko bateragarritasuna errazteko". Landa eremuan baserrita-

rrek burutzen duten jarduerak biotopoko paisaiaren kontserbazioan duen garrantziaz kontzientzia hartzea bilatzen du kanpainak. Horretarako, sei informazio-gune prestatu dituzte jende gehien dabilen ibilbideetan barrena. Puntu hauetako bakoitza erraz identifikatu ahal izango dute bisitariak, landapaisaiarekin bat datozen elementu tipikoak erabili direlako horretarako, eta gune bakoitzean mezu ulerterraz bat ageri da ingurumenarekiko eta baserritarren jarduerarekiko errespetua sustatzeko. Geoparkeko kideek azaldu dutenez, inguruko baserritarrek modu aktiboan parte hartu dute kanpaina hau prestatzen, euren kezak azalduz eta puntu bakoitzean mezu egokiak igoriz.

Geoparkea bistartzeko bide-seinaleak
Bestetik, Geoparkeak urrats berri bat eman du bere irudia zabaltze aldera, eta Geoparkearen eremura sartzeko sarrera nagusietan bide-seinaleak jarri ditu. Lanak ez dira amaitu, baina jada kartelak ikusgai daude hainbat tokitan, hala nola A-8 autopistan, Zumaia parean edo N-634 errepideko zenbait puntutan.



Koldo Mitxelena hil da, Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteko koordinatzailea

Apirilaren 1ean hil zen Koldo Mitxelena Zumaran, Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteko koordinatzailea. Ezustean gertatu da 39 urte zituen euskaltzalearen heriotza eta albisteak atsekabea eragin du eskualde osoko euskalgintzako mugimenduan.

1993an hasi zen ...eta kitto! aldizkarian idazten, kolaboratzaile moduan eta 1998az geroztik ...eta kitto! Euskara Elkarteko koordinatzailea izan da.

Koldo Mitxelenak harreman handia izan du Zuhatza Euskara Elkartearekin eta *Berriketan* aldizkariarekin. Bestek beste, azken urteotan Debabarrenan eskualdeko proiektu komunitario bat sortzeko ahaleginetan ere bidelagun izan dugu.

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIKUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi Kalea, 21
Tfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 818 664 014
20820 DEBA (GIPUZKOA)



Agenda

Apirilak 17-21

-Aste Santua.

Apirilak 20, igandea

-Aberri Eguna 2014.

Apirilak 22-25

-11:00-13:30. **Udaberriko Udalekuak**, Debanaturak antolatuta. 5 eta 9 urte bitarteko haurrentzat. Plaza mugatuak. Informazioa: 943191172/695783656/debanatura@hotmail.com.

Apirilak 25, ostirala

-**Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

Apirilak 26, larunbata

-12:00. **Kalean Kantuz**. Agirre jauregitik hasiko da kalejira.

Apirilak 27, igandea

-11:00. **XXVI. Euskal Herria Trofeoa**, Amaiak Bat Txirindulari Taldeak antolatutako proba (kadeteentzat).

Maiatzak 1, osteguna

-Langileen Nazioarteko Eguna.

Maiatzak 4, igandea

-17:00. **Ipuin kontaketa**, herritarrak herriko neska-mutilei kontari. Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan LHko 1., 2. eta 3. mailakoentzat; 18:00etan, LHko 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilentzat.

Maiatzak 15, osteguna

-18:00. Luzaro ikastetxeko 5. eta 6. mailako neska-mutileen **bertso jaialdia**, Aldats pilotalekuan.

Maiatzak 16-17-18

-Debarren Eguna. Egitarau berezia antolatuko da.

Ibilketa Nordikoko irteera gidatuak

Debako Udalak irteera gidatuen egutegi bat prestatu du, Ibilketa Nordikoan instruktore den irakasle batekin. 2-3 orduko iraupena izaten dute irteerak eta 10:00etan abiatzen dira, Debako Turismo Bulegotik. Interesatuak izena aurrez eman behar dute, eta 5 euro ordaindu (Turismo Bulegoan edo, egun berean, jarduera hasi aurretik).

Hurrengo irteerak apirilaren 20an eta maiatzaren 11n burutuko dira. Apirilaren 20ko hitzordua, gainera, Mintzalaguntzako aproposa



izan daiteke, euskara hutsezko ibilbidea proposatuko baita, euskara ikasten ari direnek praktikatzeko aukera izan dezaten.

Informazio gehiago: Debako Turismo Bulegoan (943192452).

Gipuzkoako XLV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

-Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketak aurrera jarraitzen du. Hurrengo jaurtialdiak Elgoibarko San Migelen (apirilaren 26an), Soraluzeako San Andres bolatokian (maiatzaren

10ean) eta Elgetan (maiatzaren 17an) jokatu dira. Saioak larunbatetan burutzen dira, arratsaldeko 17:00etan hasita. Ekainaren 7an amaituko da txapelketa, Lasturren.

Ordutegi berezia Udal Liburutegian eta KZGunean

Apirilaren 17tik 21era itxita egongo da Ostolaza Udal Liburutegia eta hilaren 22, 23, 24 eta 25ean goizez irekiko dute. *Liburutegi orokorra: 9:00-14:00.

*Haur liburutegia: 10:00-13:00.

Bestetik, KZGuneak jakinarazi du arratsaldeko ordutegia izango duela apirilean (16:00-20:00), baina Aste Santuko oporrak direla eta, hilaren 17tik 27ra bitarte itxita egongo dela.

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadaren administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajos
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosj.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **maiatzak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.**

Burgoa Zuazo: **apirilak 18, 19, 20, 28, 29, 30.**
maiatzak 1, 16, 17, 18.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 3 eta 10

BURGOA ZUAZO: apirilak 19 eta 26
maiatzak 17 eta 24

9:30 - 13:30

Elgoibar Arreiture BHI 2014-2015 ikasturtea



Elgoibar Arreiture BHI
Arregitorre 2
Tel.: 943 748 397
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.net

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
Osasun zientziak
Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA
GIZARTE ZIENTZIAK
Gizarte zientziak
Humanitateak

AURREMATRIKULAKO DATAK:
MAIATZAREN SETIK 15ERA



GURASOENTZAT BILERA IREKIA:

MAIATZAREN 5EAN, ARRATSALDEKO 18:00ETAN MENDATA IKASTETXEAN



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETEINGABERO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Eteingabeko Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com